

11/2026 Irizpena, martxoaren 18koa Emakida-kontratu honen aldaketa: Iruña eta Tafalla bitartean (Tafallako eskualdea –NAV-002–) errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuarena.

Eskatzailea: Lurralde Kohesiorako Departamentua

Txostengilea: Inés Olaizola Nogales

Interesa: Aplikatu beharreko araudia: sektoreko legeria. Prozedura-akatsa: jendaurreko informazioaren izapiderik eta entzunaldiaren izapiderik eza.

Irizpen honen xedea da «Iruña eta Tafalla bitartean (Tafallako eskualdea –NAV-002–) errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuaren emakida-kontratua» aldatzea. Garraioaren Plangintza eta Modernizazio Zerbitzuko bitarteko zuzendariaren txostenaren arabera, aldaketa hori honetan datza: zerbitzu eta plaza gehiago eskaintzea, artatutako biztanleriaren mugikortasun-premiak behar bezala betetzen direla bermatzeko, bai eta kontratuaren eremuan sartutako herrien konektagarritasuna hobetzea ere, udalek eta erabiltzaileek zerbitzuen eta plazen eskaintza egungo benetako eskarira egokitzeko egin dituzten eskaerei erantzunez.

Kasu honetan, jasota dago kontratista ez dagoela ados kontratu-aldaketaren ondorio ekonomikoekin, eta Kontseiluak uste du kontratistak berariaz uko egiten diola aldaketa horren ondoriozko konpentsazio ekonomikoari. Horregatik, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera (143. artikulua), kontratista aurka dagoen heinean, nahitaezkoa da Nafarroako Kontseiluak irizpena ematea.

Aldaketa-prozedura izapidetzean aplikatu beharreko araudiari dagokionez, garrantzitsua da Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordearen 2/2023 Txostena, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen eta Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren (LGAE) arteko gatazka arauemaile bat ebatzi duena. Txosten horretan nabarmentzen denez, garraioaren emakidak bidaiariak trenez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzko Erregelamenduak (EE) (1370/2007) arautzen ditu, eta ez Kontratazio Publikoko Zuzentzauek. Horregatik, emakida horiei ezin zaizkie aplikatu Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak. Ondorioz, lurreko garraioaren sektoreko araudia nagusitzen da, hau da, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legea (LGAL) eta LGAE, aldaketa horiek arautzeko.

Kontuan hartu behar dira, halaber, emakida-kontratua arautzen duen agiriaren baldintza partikularrak, «kontratuaren benetako legea» baitira, jurisprudentziak dioen bezala.

Araudi horren arabera, proposatutako aldaketak (LGAEren 91. artikuluko kasuarekin bat datorrena) LGAEren 104.1 artikuluan ezarritako prozedura eskatzen du, zeinak, kontratua aldatu aurretik, jendaurreko informazioaren 15 eguneko izapidea eskatzen baitu, bai eta kontratistari txostenak eskatzea ere. Jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez, ez dago jasota egin denik, eta Kontseiluaren ustez 2022an egindakoa ez da baliozkoa, gaur egun proposatutako aldaketa ez delako une hartan planteatutakoa, eta, zenbat denbora igaro den kontuan hartuta, izapide horrekin lortu nahi zen helburua ez delako betetzen.

Entzunaldiaren izapideari dagokionez, kontuan hartuta jurisprudentziak izapide hori betetzat jotzen duela betiere defentsa-gabezia materialik gertatzen ez bada, eta horretarako baloratuz interesdunak ba ote zuen espedientearen berri eta alegazioak egiteko denborarik izan ote zuen, Kontseiluak uste du ez zela izapide hori bete. Hasiera batean, 2025eko urrian, aldaketa emakidadunarekin aztertu zen, eta hark kostu- eta aldaketa-proposamenak aurkeztu zituen. Ondoren, beste harreman batzuk izan ziren aldean artean. 2026ko otsailaren 2an, emakidadunak eskatu zuen Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegora (OANA) igorriko zen espedientea. Otsailaren 3an igorri zioten, eta behin betikoa ez zela ohartarazi. Hala ere, ez zitzaion formalki jakinarazi entzunaldi-izapidea ireki zela. Alegazioak egiteko edo frogak aurkezteko epea ere ez zitzaion jakinarazi. Gainera, ez zuen erreakzionatzeko denbora eraginkorrik izan, txosten teknikoak aldaketa-proposamena egin zen egun berean igorri baitziren, eta OANAK emandako behin betiko txostena ere ez zitzaion igorri.

Horregatik, ondorioztatzen da ez zirela bete jendaurreko informazioaren izapidea eta entzunaldiaren izapidea, eta, beraz, aldaketak ez dituela betetzen LGAEren eta LGALren lege-baldintzak (informazio publikoa eta entzunaldia), eta ez datorrela bat ordenamendu juridikoarekin.